



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak *Dido & Aeneas* ekoiztu eta eszenara darama, Purcellen musika bikaina ingelesez eta historian lehen aldiz euskaraz interpretatuko diren Marloweren testuen poetika uztartzen dituen ikuskizuna

- Antzerki musikal barroko ikuskizun honetan bi maisu lan fusionatuko dira: Henry Purcellen *Dido and Aeneas* opera, eta Christopher Marloweren *Dido, queen of Carthage* lana.
- Historian lehen aldiz, Marloweren testuak euskaraz interpretatuko dira, Shakespeareren garaikide izan zen egile ingelesaren edertasun poetiko guztiarekin.
- Barbora Horáková Joly, orain gutxi Europako zuzendari berri onenari *International Opera Award* saria jasotakoa, da muntaketaren eszena zuzendaria, eta Petros Bakalacos da musika zuzendaria.
- Nerea Berraondo eta León de la Guardia dira Didori eta Eneasi bizia emango dieten ahots bakarlariak, eta pertsonaia horiek antzezteko lana Miren Gaztañagak eta Adrián García de los Ojosek burutuko dute.
- Naroa Intxausti abeslaria ere arituko da, eta baita zenbait antzezle ezagun ere: Joseba Apaolaza, Itziar Lazkano, Mikel Losada, Karmele Larrinaga, Idoia Merodio, Lucía Astigarraga eta Koldo Olabarri.
- Propitia Sydera Bilbao orkestrak joko du Henry Purcellen opera ezagunaren goi mailako musika; Marloweren antzezlanarekin izango duen fusioak eszena ezin ederragoak sortuko ditu.
- Ana Sagastizabal, Ainhoa Zuazua, Alicia Manceras, Josu Cabrero, Alesander Pérez eta José Manuel Díaz dira ikuskizun honetarako ahots bakarlarietako osatutako abesbatzako kideak.
- León de la Guardia abeslari txiletarra izan ezik, antzezle, abeslari eta musikari guztiak euskaldunak dira, Arriaga Antzokiak bertako talentuaren alde egiten duen apustua berretsiz.
- Azpimarratu beharreko beste alderdi batzuk, Janiv Oron DJak zuzenean eskaintzen dituen musika elektroniko soinu ñabardurak eta ehundurak eta eszenan ere agertuko den James Rosentalen koreografiak dira.
- *Dido & Aeneas* bihar ostiralean, maiatzaren 3an, estreinatuko da 19:30ean, eta beste emanaldi bat eskainiko da larunbatean, maiatzaren 4an, ordu berean.
- Ikuskizun osoak euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko gain-tituluak eramango ditu, ikusle guztiek arazo barik jarraitu ahal izateko.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 2an.- Henry Purcellen goi mailako musika eta Christopher Marloweren edertasun poetikoa elkar besarkatzeko prest dira dagoeneko, amets egiteko ikuskizun batean: *Dido & Aeneas*. Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan berri honen

estreinaldia bihar ostiralean gauzatuko da, alegia, maiatzaren 3an eta 4an larunbatean ere antzeztuko da –emanaldi biak 19:30ean–. **Antzerki musikal barroko ikuskizun handi honek bi maisu lan fusionatzen ditu: Henry Purcellen *Dido and Aeneas* opera; eta Christopher Marloweren *Dido, queen of Carthage* antzezlana.** Inolako zalantza barik, bi lanen arteko konbinazioa erronka zirrargarria izan da talde artistikoarentzat eta antzezteentzat, proiektu handi honi forma emateko orduan. Berez ere, pasio basatiari eta sentimenduen indarrari buruzko istorio handi hau eszenara eramatea erronka bada, are gehiago ikuskizun berean hain lan garrantzitsuak uztartzeko helburu ederra planteatzen denean. Purcellen operaren konposizioak jatorrizko ingelesez entzungo dira, eta Marloweren antzezlana euskaraz antzeztuko da. Hori dela eta, ikuskizun osoak euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko gain-tituluak izango ditu, ikus-entzule guztiek inolako arazo barik jarrai eta uler dezaten.

Marloweren lana euskaraz antzezte oso azpimarragarria da *Dido & Aeneas* ikuskizunean. Izan ere, Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan berri honi esker, dramaturgo britainiar bikaina lehen aldiz itzuli da euskarara, *Dido, queen of Carthage* jatorrizko testuaren indar eta poesia guztia geure hizkuntzara ekarriz. Gogorarazi behar da Christopher Marlowe egile ingelesa William Shakespeareren garaikidea izan zela (XVI. mendea). Izan ere, haren aitzindaritzat hartzen da. Ingalaterrako antzerki panorama modernizatzen lagundu zuen, eta berarekin hasi zen isabeldar izenez ezagutu zen garai emankorra, Shakespeare berarekin puntu gorenera heldu zena. Hori dela eta, bardo ezagunetik oso gertu egon zen egilea da, eta hark bezala, bere ezaugarri nagusiak adierazpen aberastasuna eta edertasun poetikoa dira. Hori horrela, *Dido & Aeneas* hau, Marloweren edertasun poetikoaz gure hizkuntzan gozatzeko aukera paregabea da.

Interprete talde zabala, ia denak euskaldunak (abeslariak, bakarlariak, antzezteak, orkestra eta abesbatza), arduratuko da hain muntaketa lan berezia eszenara eramateaz. Horien aukeraketak agerian uzten du, beste behin, Arriaga Antzokiak Euskadin dagoen interpretaziorako talentuaren alde egindako apustua. Proiektua modu egokian gidatzeko, Arriaga Antzokiak jatorriz txekiarra den baina Suitzan bizi den **Barbora Horáková Joly** zuzendari gaztearengan jarri du konfiantza berriro ere. Talentuz gainezka datorren emakume zuzendari gazte honen agerpen indartsua benetako gertakari garrantzitsua izan da Europan. Bere ikuskizunek kritikaren eta ikus-entzuleen txaloak jaso dituzte eta, iaz, 2018an, Europan garrantzia hartzen ari den izar garrantzitsuenaren *International Opera Award* saria lortu zuen Londresen Barbora Horáková Jolyk. *Ring Award* ospetsuaren finalista ere izan zen eta *Graz Hiria Saria* lortu zuen bere zuzendaritza lan garrantzitsuarengatik. Arriaga Antzokian ere erakutsi izan du bere maila, 2017an *L'Orfeo* ekoizpen lan propioa zuzenduz eta Leonard Bernsteini eskainitako *I hate music* kontzertu-omenaldian alderdi eszenikoak koordinatuz, 2018an.

Musikaren atalean, **Petros Bakalakos** greziarra da bere batutarekin *Dido & Aeneas* laneko musika egitura guztia gidatuko duena. Londresen eta Stuttgarten prestatu zen Bakalakos musika ibilbide garrantzitsua ari da egiten, musika lirikoaren puntako hirietan lan eginez, Zurichen, Vienan edo Salzburgon, besteak beste. Azkenaldian, arrakastaz zuzendu ditu Zuricheko Ganbera Orkestrak burututako bi opera produkzio.

Interprete handiak agertokian

Dido & Aeneas laneko interprete taldea handia da, kantitateari eta kalitateari dagokienez. Obrako bi protagonista nagusiek, Didok eta Eneasek, bina interprete dituzte, musika eta antzezpena interpretatzeko. Horrela, **Nerea Berraondo** (Dido) eta **León de la Guardia** (Eneas) dira protagonista biei ahotsa jarriko dieten bi bakarlariak, abestu behar dutenean. Antzezpenari dagokionez, maila bikainean dagoen **Miren Gaztañaga** da Dido eta beti ere moldakorra den **Adrián García de los Ojos** da Eneas. Abeslari bat eta antzezte bat eskatzen dituen beste pertsonaia bat ere badago, Belindarena alegia, eta hori **Naroa Intxausti** abeslariak eta **Lucía Astigarraga** antzezteak interpretatuko dute. Gainerako kide guztiak euskal eszenako antzezte garrantzitsuak dira, **Joseba Apaolaza**, **Karmele Larrinaga**, **Itziar Lazkano**, **Mikel Losada**, **Idoia Merodio** eta **Koldo Olabarri**. Guztiek ere

kategoria handia dute antzezle gisa, lan asko egindakoak dira, eta euren emanaldiek une bikainak eskainiko dizkigute.

Musika, ezinbestekoa

Henry Purcellen partiturak, bere lengoia musikala ezagutzen duten bakarlariak eskatzen ditu, eta horrelakoak dira *Dido & Aeneas* lanean parte hartzen duten Nerea Berraondo, León de la Guardia eta Naroa Intxausti. Baina baita musika tresna jotzaile espezializatuak ere. Hori da **Propitia Sydera Bilbao** orkestra barrokoaren kasua. Ikuskizunean erabat integratuta dagoen Purcellen operari dagokion musika interpretatuko dute. Horrez gain, bakarlariak ere diren sei abeslarik osatutako abesbatzak indartuko du *Dido & Aeneas* lanaren aho indarra. **Ana Sagastizabal, Ainhoa Zuazua, Alicia Manceras, Josu Cabrero, Alesander Pérez** eta **José Manuel Díaz** dira. Bakalagos maisuaren jarraibideei jarraituz, eta Carlos Imaz maisuaren laguntza ere alboan izanda, seiek gogor egin dute lan Henry Purcellek bere opera sorkuntza ahazteazinean oparitu zizkigun matiz eta kolore guztiak ateratzeko. Halaber, nabarmendu beharra dago, sei abeslarien partaidetzari dagokionean, ahots-interpretaziotik askoz haratago joango dela, izan ere pertsonaia desberdinen paperak ere betetzen dituzte, bai eta dantzatu, besteak beste.

Musikaren atalean **Janiv Oron DJaren** ekarpena ere azpimarratu behar da (*L'Orfeo* lanean pintxatu zuen duela bi urte), soinu ñabardurak, base erritmikoak eta musika elektronikoko ehundurak ematen baitizkio *Dido & Aeneas* honi, soiltasun eta dotoretasun handiz, musika eta antzerki ikuskizunaren multzoan ezin hobeto uztartuz.

Nazioarteko talde artistikoa

Lantalde artistikoan, badira nazioarteko lehen mailako beste profesionalak ere, jada aipatutako **Barbora Horáková Joly** eta **Petros Bakalagos** alde batera utzita. Esaterako, musika ukitu nabarmena duen antzezlanaren denez, garrantzi berezia hartzen du **James Rosentalek** aurrera daraman koreografia lan txukunak. Dantza garaikidearen barruan ibilbide interesgarria eraikitzen ari den koreografo ingeles gaztea da. Rosentalek, *Dido & Aeneas* ikuskizun osorako une koreografiko bikainak eraikitzeaz gain, parte hartze aktiboa du ikuskizuneko hainbat eszenatan, oso dantza eta gorputz adierazpen mugimendu ederrekin.

Ikusleentzat deigarriak izango dira, baita ere, **Benjamin Burgunderrek** diseinatutako jantziak, kontrastez betetakoak, *Dido & Aeneas* laneko pertsonaien aniztasuna dela eta. Horrez gain, **Eva-María Van Acker** (ederra oso bere eszenografia) eta **Michael Bauer** (argiztapen iradokitzaile eta jostagarriaren sortzailea), berriro arituko dira Arriaga Antzokiko ekoizpen lan batean.

Dido & Aeneas Gaztea

Gaur ostegunean, maiatzaren 2an, konpainiak Entsegu Orokorra burutuko du arratsaldeko 19:30ean. Arriaga Antzokiak hura baliatu nahi izan du 30 urtetik beherako gazteei opari berezi bat luzatzeko. Izan ere, "**Dido & Aeneas Gaztea**" ekimena gauzatuko da, aurretik beste ekoizpen batzuekin, hala nola *L'Orfeo*, *War Requiem*, *Johannes Passion* edota *Macbeth* lanekin, aurrera eramandako ekintza arrakastatsua errepikatuz. Ekimenaren helburua arte eszenikoak gazteei hurbiltzea da eta, halaber, Arriaga Antzokiaren beraren eta gazteen arteko elkarrekintza sustatzea. Horrela, gaur bertan, maiatzaren 2an, 19:30ean, egingo den Entsegu Orokorra dohainik joateko aukera eskainiko zaie Arriaga Antzokia Facebooken, Twitterren edo Instagramen jarraitzen duten 30 urtetik beherakoei. Beraz, ikuskizun handiarekin gozatzeko aukera paregabea baliatu nahi duenak bi baldintza hauek baino ez ditu bete behar: 30 urtetik beherakoa izatea eta Arriaga Antzokiaren jarraitzailea izatea edo egitea bere Sare Sozialetan.

Doako sarrera lortzeko (pertsona bakoitzari bakarrik emango zaio), interesatuta dagoena antzokiko txarteldegietara edo Informazio Bulegora joan beharko da, NAN erakutsi eta sare sozialetan Arriaga Antzokia jarraitzen duela frogatu. Sarrerak agortu arte banatuko dira.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 eta 52 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Dido & Aeneas

“Bakea eta ni arrotz bilakatu gara”

Musika:**Henry Purcell** (*Dido and Aeneas*)

Testuak:**Christopher Marlowe** (*Dido, queen of Carthage*)

Eszena zuzendaritza:**Barbora Horáková Joly**

Musika zuzendaritza:**Petros Bakalakos**

Eszenografia:**Eva-María Van Acker**

Argiztapena:**Michael Bauer**

Jantzien diseinua:**Benjamin Burgunder**

Koreografia zuzendaria eta dantzaria:**James Rosental**

DJ konposatzailea:**Janiv Oron**

Maisu errepikatzailea eta organo-jotzailea:**Carlos Imaz**

Interpreteak

Ahots bakarleri nagusiak

Dido: **Nerea Berraondo**

Eneas: **León de la Guardia**

Belinda: **Naroa Intxausti**

Antzezleak

Dido: **Miren Gaztañaga**

Eneas: **Adrián García de los Ojos**

Belinda: **Lucía Astigarraga**

Jupiter: **Joseba Apaolaza**

Juno: **Idoia Merodio**

Venus: **Itziar Lazkano**

Cupido: **Karmele Larrinaga**

Ganymed: **Koldo Olabarri**

Iarbas: **Mikel Losada**

Ascanius: **Pol Asua Galarza (umea)**

Orkestra

Propitia Sydera Bilbao

Abesbatza - ahots bakarleriak

Ana Sagastizabal, Ainhoa Zuazua, Alicia Manceras, Josu Cabrero, Alesander Pérez, José Manuel Díaz

Arriaga Antzokiaren ekoizpen berriaren estreinaldia, 2019ko maiatzak 3 eta 4

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus